

2012an Euskal AEn informatika-jarduerak 13.000 pertsona okupatu eta 1.250 milioi fakturatu zituzten

Garraioaren ingurukoak 2.778 milioi fakturatu eta 10.500 pertsona pasa okupatu zituzten

Eustatek landutako datuen arabera, 2012an Euskal AEn informatika-jarduerak 13.000 pertsona okupatu eta 1.250 milioi inguru fakturatu zituzten. Bizkaian gauzatu zen fakturazioaren %67,8, Araban %16,2, Gipuzkoan %16,0.

Garraioaren ingurukoak –portuek, aireportuek eta salgaiekin lotutako beste zenbaitek- 2.778 milioi fakturatu zituzten 2012an. Bizkaian izan genuen sektore honen negozio-zifraren %56,2, Gipuzkoan %32,3, Araban %11,5. Adar honetan 10.593 pertsona okupatu ziren; pertsonako salmenta-ratioa, 262.228 euro.

1. taula: Askotariko zerbitzuen aldagai nagusiak¹, jarduera-adarren arabera. 2012

	Pertsonal okupatua	Negozio zifraren zenbatekoa	Hornimenduak	Kanpo-zerbitzuak	BEG faktoreen kostuan	Pertsonal gastuak
Garraioarekin uztartutako jarduerak	10.593	2.777.783	1.354.639	628.049	964.397	492.354
Posta zerbitzuak	4.308	201.434	46.939	48.008	113.408	96.142
Argitalpena	2.114	299.087	61.494	123.104	144.171	90.513
Ikus-entzunezkoak, zinea, irratia, telebista	3.390	245.190	113.126	116.085	179.602	134.736
Informatika	12.992	1.242.952	362.626	271.584	676.183	544.070
Finantza-laguntzaileak	4.391	335.854	21.868	88.680	238.791	129.691
Jarduerak higiezinekin	5.186	677.368	164.851	174.745	507.469	141.429
Kultur jarduerak	6.002	588.688	174.595	180.362	308.554	174.792
Kirol eta aisialdi jarduerak	7.343	527.481	73.252	193.866	368.470	286.358
Ordenagailuen eta beste artikuluen konponketa	2.540	146.827	46.749	25.069	75.367	54.399
Beste zerbitzu pertsonal batzuk	12.688	450.661	92.188	107.445	259.977	177.114

Iturria: Eustat. Zerbitzuen estatistika


Higiezinaren adarrak 5.186 pertsona enplegatu zituen; pertsonako batez besteko fakturazioa, 130.615 euro. Negozio-zifra, %65,3 Bizkaian, %24,4 Gipuzkoan, %10,3 Araban.

Jarduera kulturek 6.002 pertsona okupatu zituzten; kirolekoak eta dibertimenduzkoak 7.343 lanpostu sortu zituzten. Adar hauetako pertsonako salmentak: 98.082 euro eta 71.835. Bi sektoreetan Bizkaiak izan zuen salmenta-bolumenik handiena, kulturalen %58,1 eta kirol eta dibertimenduzkoen %50,7. Gipuzkoak %31,3 eta %34,2; Arabak %10,6 eta %15,1.

¹ EJSN-2009aren arabera jarraian zehazten diren taldeetako batean sar daitekeen jarduera bakarra edo nagusia duten establezimenduak aztertzen ditu: 52, 53, 58, 59, 60, 62, 63, 66, 68, 90, 91, 92, 93, 95 y 96.

Pertsonaren beste zerbitzuen adarrak sortzen du pertsonako salmenta-ratioaren txikiena aztertutakoen artean, 35.519 euro. Azpisektore nagusia ile-apaindegiak eta edertasun-zentroak dira. Adar honetan 12.688 langile aritu ziren. Negozio-zifrak: %56,1, Bizkaian; %32,7 Gipuzkoan; %11,2 Araban.

1. grafikoa. Langile okupatuak eta negozio-zifraren zenbateko garbia jarduera adarren arabera, Euskal Aen. 2012



Establezimenduetan enplegatutako batez besteko pertsona-kopurua, 3,4. Langilerik gutxien, Jarduera kulturetan, 1,5, eta Finantza-laguntzaileetan, 1,7; beste muturrean, Garraioaren ingurukoetan, 9,1. Ordenagailu eta beste artikuluen konpontzeko establezimenduetan batez beste 2 pertsona ari dira; Jarduera kulturekoetan 2,9; Ikus-entzumenezko, zine, irratia eta telebistetan 4,9; Kirol eta dibertimenduzkoetan, 5,6. Gainerako jardueretan 6 pertsona baino gehiago enplegatzen dira: Edizioan 6; Posta jardueretan 6,3; Informatikan 7,9.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Zerbitzuen estatistikari buruzko prentsa-ohar gehiago